

azpeitianzer?

udal aldizkaria 157. zenbakia
2013ko ekaina

Gugandik hasita!

Azpeitiko Udalak aho batez onartu du hondakinen bilketa sistema edukiontziz izatea. Azpeitiarrok, ezinbestean birziklatu beharko dugu.



Gizarte zerbitzuak
Udalak eta talde eta eragileek Mahai Soziala eratu dute beharra dutenei laguntzeko



Alde Zaharra biziberritzen
Lanak hasi dira Olazko Amaren Plazan, Foru ibilbidean eta Done Jakue kalean

ale honetan zer?

2 Aurkibidea

3 Plax! Sexu-aholkularitza

4 Mahai Soziala

6 Alde Zaharra

8 Erreportajea-hondakinak

12 Motxak

14 Agenda

16 Ur jardunaldiak

Argitaratzailea: Azpeitiko Udala
Egilea: Prentsa bulegoa
Argazkiak: EREGI, Euskara eta Komunikazioa

Diseinua: EREGI, Euskara eta Komunikazioa
Ale kopurua: 7.000
L.G: SS - 1148/91

Azpeititik kanpo bizi
arren, zure etxean jaso
dezakezu Azpeitian Zer?
aldizkari hau posta bidez.
Egin eskaria 943 15 71 85
(Alkatetza) telefonoan.



Zentralita	943 15 72 00	Iturritxiki Ludoteka	943 15 11 79	Euskara Patronatua	943 81 45 18
Alkatetza	943 15 71 85	Txiki-Txoko Ludoteka	943 15 05 16	Udal Euskaltegia	943 81 19 47
Idazkaritza	943 15 71 98	Zapo Txoko	943 15 71 61	Lapatx Zabortegia	943 15 18 75
Kontuhartzailatza	943 15 71 89	Gazte Informazio Bulegoa (GIB)	943 15 71 60	Azpeitia Lantzen S.A.	943 15 71 83
Hirigintza	943 15 71 91	Eguneko Zentroa	943 15 74 96	Ingurugiro Etxea Fundazioa	943 15 17 13
Gizarte Zerbitzuak	943 15 71 92	Liburutegia	943 15 71 95	Tokiko Agenda 21	943 15 70 70
Kultura	943 15 70 68	Udaltzainak	943 15 13 13	Kontsumitzaileen	
Komunikazioa	943 15 79 82	Suhiltzaileak	112	Informaziorako bulegoa	943 15 71 93
Kirolak	943 15 00 95	Igerilekua	943 81 41 21	Baigera I	943 81 44 64
Parekidetasuna	943 15 79 28	Kiroldegia	943 81 30 69	Baigera II	943 81 23 89
Emakumeen Txokoa:	943 15 70 55	Izarraitz Pilotalekua	943 81 25 63	Ingurugiro Etxea Museoa	943 81 24 48

botikatxandak



ALBERDI. Jose de Artetxe 6, Tel.: 943 81 59 74
Ekainaren 10, 15, 16, 21 eta 26

ARANBURU. Plaza Nagusia - Goiko kalea 2
Tel.: 943 81 13 50
Ekainaren 19

BERISTAIN. Urbitarte auzoa 3, Tel.: 943 81 19 49
Ekainaren 13, 20, 25 eta 28

EIZAGIRRE. Enparan 29, Tel.: 943 81 12 74
Ekainaren 11, 14, 17, 22 eta 23

JACOME. Garmendi 21, Tel.: 943 08 02 58
Ekainaren 8, 9, 12, 18, 24, 27, 29 eta 30



“Gizon eta emakumeen artean harreman juxtuagoak izatea, elkarri ematen diogun tratua hobetzea eta sexualitaren bizipen osasungarria bultzatzea da”

Herriko ikastetxeetan sexualitatearen ingurukoak lantzeko proiektua orain 5 urte jarri zen abian. Orain, zerbitzuari indar eta haize berriak emateko helburuarekin, aldaketak egin ditu Azpeitiko Udalak. Berrikuntza hauei buruz jakiteko Harremonak hezkidetzatza proiektuko Asier Bagliettorekin egon gara.

Zer da plax! Zein da bere helburua?

Plax! Sexu-aholkularitza zerbitzua da, sexualitatea eta harremanen inguruko aholkularitza azpeitiar guztiei eskaintzen diena eta Udalaren Hezkidetzatza programan barne kokatzen da. Emakumeen Mahaia bultzatuta Azpeitiko Udalak duela 5 urte martxan jarri zuen Hezkidetzatza programa, eta honen helburua, herriko gizon eta emakumeen artean harreman juxtuagoak izatea, elkarri ematen diogun tratua hobetzea eta sexualitaren bizipen osasungarria bultzatzea da. Norabide honetan ekintza eta jarduerak mordoak jarri ditu martxan Udalak, eta aurten Plax! Aholkularitza zerbitzua martxan jarri du. Plax!en helburu nagusia, herritarrei beraien harremanak eta sexualitatea modu osasuntsu eta gozagarrian bizitzen laguntzea da.

Zergatik Plax! Izena?

Oinarri oinarrian, sexualitatea plazerarekin lotu nahi dugulako, eta bestetik, **Plax!** hitzak bustitzea dakarkigulako burura... eta honek badu zentzua, izan ere, gure harremanak eta sexualitatea gozagarriak izatea nahi badugu, gaien busti beharra daukagu, galdetu, irakurri, zalantzak azaldu, hitz egin, kontatu.... Urte luzez sexualitatea oso ixileko gaia izan da, tabua, pekatuari eta kulpari oso lotua. Informazio falta izugarria egon da eta norberak ahal duen moduan moldatu behar izan du. Orain berriaz, informazio ugari dugu, eta sexualitatea presentetago dago gure jendartean, baina jasotzen ditugun

ereduak, gehienetan, ez dira osasuntsuak, kontsumoari, arrakastari, eredu estetiko ezinezkoiei edo bizi osorako gatzetasunari lotuta daude, harreman heterosexualak bakarrik erakusten dizkigute, eta oso modu estereotipatuan, gatazka eta kontraesanik gabe, mito erromantikoaren eredu jarraituz, sexualitatea berriaz, beti bikotean, erabat genitala eta koitoari lotua, e.a. Eta eredu berri hauek frustrazio mordoak sortzen dute, ezinezko helburuak planteatzen dituztelako eta munduko herritarren gehiengoak hortik kanpo gaudelako. Horregatik, orain gutxi arte nagusi zen ixiltasunari aurre egiteko eta oraingo informazio-mordoan bakoitzak zer nahi duen argitze-ko, garrantzitsua da denok **Plax!** egin eta norbere buruaren alde bustitzea.

Zein zerbitzu eskaintzen dira?

Zerbitzua 3 arlotan antolatuta dugu. Batetik **Plax! Sarean**. azpeitianplax@gmail.com helbidearen bitartez, edozein azpeitiarrek aukera izango du nahi dituen kontsultak egiteko. Bestetik herritar guztientzako aurrez aurreko aholkularitza zerbitzua eskaintzen dugu emakume txokoan, hileko azken larunbat goizetan, 10'00etatik 13'00etara. Zerbitzu hau banaka edo taldeka erabili daiteke, eta interesa duenak txanda eskatu dezake azpeitianplax@gmail.com helbidean. Eta azkenik gazte**Plax!** **Gaztetxoentzat** hileko azken ostiral arratsaldetan Gaztelekuan kontsultak egiteko aukera eskaintzen dugu eta horrekin batera

sexualitatea eta harremanen inguruko kontuak lantzeko dinamikak ere egiten ditugu.

Zein harrera izan du orain arte?

Ondoen funtzionatzaren duen zerbitzua gazteena da, izan ere, zerbitzuak badaramatza 4 urte martxan eta gainera Gaztelekuan egiten dugunez, gazteak bertan daude hasieratik. Planteatzen ditugun dinamiketan parte hartzen ari dira, eta kontsultak egiteko ere baliatzen dute. Interneteko kontsultak ere hasi dira iristen, ttantaka. Helduentzako aurrez aurreko zerbitzua, berriaz, oraindik ez da askorik erabiltzen, ez guk nahiko genukeen bezain beste. Zerbitzua berria da, eta ohitura sortzea denbora kontua izaten da.

Nola animatuko zenituzke herritarra plax! erabiltzera?

Ba zera esango nieke; sexualitatea eta harremanak bizitzaren oinarritzko esparruak izanda, hauek lantzea oso komenigarria dela. Bizitza osoa ematen dugu ikasten, geografia, literatura, informatika, matematika edo biokimika. Baina gure egunerokoan harremanak eta sexualitatea ditugu gurekin, egunero, eta norberak egiten ez badu, ez du beste inork lan hau egingo. Harremanetan eta sexualitatean sortzen zaizkigun galderak, kezak, korapiloak, ametsak, espektatibak, frustrazioak, e.a. konpartitzeko eta bideratzeko tresna ezin hobea da **Plax!**



Leire Etxaniz eta Kontxita Martija zinegotziak.

Mahai Sozialak lehen pausoak eman ditu

Herriko talde eta eragileak elkarlanean aritzea lanean du helburu nagusitzat

maiatzaren 28an bildu zen lehenbizikoz Azpeitiko Mahai Soziala. Azpeitiko Udalak jakin badaki herritar ugari garai latzak igarotzen ari direla eta pertsona horiei ahalik eta laguntza gehiena emateko asmoz, jarri nahi izan da abian Mahai Soziala. Modu honetan, behar sozialen inguruan lanean dabiltzan hainbat talde eta eragileei gonbidapenak bidali zaizkie bertan parte hartzeko.

“Gaizki pasatzen ari direnei laguntzeko koordinatzea bilatzen dugu, talde bakoitza bere aldetik ari delako lanean. Horregatik, Azpeitiko herritarrek bertan parte hartzera animatu nahi ditugu Udaletik!”, agertu du Leire Etxaniz Gizarte Zerbitzuetakoko batzordeburuak.

“Mahai Sozialaren azpibatzorde bat sortzea erabaki zen eraginkorragoak izateko asmoz”

Aurreneko bileran 30 herritarrek hartu zuten parte, gehienak arlo sozialeko eremu desberdinetan lanean ari diren taldeetako partaideak. Talde bakoitzak bere burua aurkeztu eta egiten dutenaren berri eman ondoren, Udalak egoeraren berri eman zuen eta aurrera begira asmoak azaldu zituen. Jarraian, Mahai Soziala berari buruz hausnartu zen. Guztiek ikusi zuten beharrezko Mahai Soziala osatzea eta guztien arteko elkarlana bultzatzea. Ondoren Mahai

Soziala nola antolatu, zer helbururekin... eztabaidatu zuten. Eraginkorrago izateko, Mahai Sozialeko azpibatzorde bat sortzea erabaki zelarik. Batzorde honetan, taldeetako ordezkari bat edo bi egongo litzateke eta mahai sozialaren helburuak, egitasmoak... proposatuko litzuke. Bigarren bilera ekainean egitea erabaki zen.

“Mahai Soziala abian da; Udala eta behar sozialen inguruan lanean ari diren herriko hainbat talderen eskutik sortu da. Herrian dauden behar sozialei erantzuteko herriko taldeen arteko elkarlana zein Udalarekin, urtean behin biltzetik haratago joan behar zela ondorioztatu zen. Hausnarketa horren emaitza da sortu berri den Mahai Soziala”, esan du Etxanizek.

DATUAK

Bestalde, Denon Artean aurrekontu parte-hartzailean zehar herriko talde eta eragileekin bildu zen Udala euren asmo eta beharrak ezagutzeko asmoz. "Behar horietako asko, 2013ko aurrekontuetan sartu genituen baina hainbat kezka ere agertu zituzten. Behar sozialen arloan adibidez, Udaleko Gizarte Zerbitzuak sailak dirua zein ataletan eta nola gastatzen duen jakitea gustatuko litzatekeela adierazi zuten. Horrela, datuak eman nahi ditugu", adierazi du Etxanizek.

Horrela, kooperazio proiektuetan, 2012an 91.801,04 euro bideratu ziren Ruandako eta Bolibiako bina, eta Saharako, Indiako, Nepaleko eta Kolonbiako herrialdeetara.

“Kooperazio proiektuetan, 2012 urtean 91.801,04 euro bideratu zituen Azpeitiko Udalak”

Udal laguntzei dagokienez, berriz, iaz 190.459,33 euro banatu zituen Udalak, 171 familiaren artean. Azpeitian bizi diren 92 atzeritar familiak eta bertako 79k jaso zuten laguntza. Datu horiekin, “kalean dauden zurrumurrak ez direla egiak agertu nahi dugu”, esan du Leire Etxanizek: “Beti esan ohi da atzeritarrei laguntzen zaiela, baina Azpeitiko Udalak dituen datuetan ikus daiteke ez dela horrela. Bide batez, Udaleko Gizarte Zerbitzuetak ateak zabalik daudela esan nahi dugu, bai gaizki pasatzen ari diren edo laguntza behar duten familientzat eta baita herriar guztientzat ere”.

Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Eusko Jaurlaritzak ere ematen dituzte Gizarte Zerbitzuak bideratutako diru-laguntzak, baina Azpeitiko Udalak kudeatzen ditu horiek. 2008an laguntza horiek (499.421,28 euro) jasotzen zituzten familiak 111 ziren. 2012an, berriz, 396 izan ziren laguntza horien (1.869.177,38 euro) hobaridunak. Gastu hori, %374,26 igo da lau urtean, eta onuradunen ehunekoak %356,75eko igoera izan du. Esku-hartze psikosoziala zerbitzua ere ematen du Udalak, “ume eta gurasoei zuzendutako zerbitzu hau urte luzez dago martxan, eta Udala egiten ari den esfortzuari esker, gero eta familia gehiago ari da zerbitzua hartzen”.

Ikastaroak ere eskaintzen ditu Gizarte Zerbitzuak sailak, besteak beste, geriatría ikastaroa, eta Enplegu Planaren baitan, Lanbiderekin elkarlanean beste ikastaro batzuk, “oso positiboki baloratzen ditugu ikastaroak, izan ere, lan munduan murgildu dira ikastaroetan parte hartu dutenek eta udazkenerako ikastaro gehiago antolatuko dira”.

Amaitzeko, San Martin egoitzarekin sinatutako lan-ituna aipatu nahi izan du zinegotziak: “garrantzitsua da bertako langile zein erabiltzaileentzat”.



Mahai Sozialaren lehenbiziko bilerako une bat.



Alde Zaharra biziberritze bidean

Olazko Amaren plaza, Foru Ibilbidea eta Done Jakue guneak oinezkotu eta irisgarritasuna hobetuko da hainbat lanen bidez

Olazko Amaren plazan eta Foru Ibilbidean lanak egiten hasi da Azpeitiko Udala. Gainera, Done Jakue kalean ere berehala hasiko dira obrak. Aritz Epelde eta Ainhoa Beristain zinegotziek aurreratu dutenez, lan hauek Alde Zaharra biziberritzeko planaren baitan kokatzen dira. Modu honetan, gune hauek oinezkotuko dira eta irisgarritasuna hobetuko da.

“Alde Zaharra biziberritzea Azpeitiko Udalaren erronketako bat bilakatu da bertako bizilagun, merkatar, kultur talde eta beste hainbat eragilarekin batera. Helburu hori betetze aldera,

“Alde Zaharra biziberritzea Udalaren erronketako bat bilakatu da bertako bizilagun, merkatar, kultur talde eta hainbat eragilarekin batera ”

Alde Zaharreko Mahaia eratu zen iaz eta elkarlana oinarri hartuz, herritarren onespenearekin, hainbat inbertsio aurreikusten zituzten aurrekontuak osatu ziren. Horrela, inbertsio horietako

asko egi bihurtzen hasi dira dagoeneko”, esan du Epeldek.

Lan hauekin Alde Zaharra biziberritzeko bidean urrats bat ematen da, “baina lana ez da amaituko, ondoren edukiz bete beharko da Alde Zaharra”.

Gainera, oinezkoen apustu garbia eginez, larunbat eguerditik hasi eta igande gauera bitartean, Alde Zaharra autoentzat itxita egongo da aurrerantzean. “Finean, Alde Zaharrak barnebiltzen duen eskaintza zabaldu eta herritarrei eremu hauetaz gozatzeko aukera eskaini nahi diegu”, agertu dute.



Lanak

Olazko Amaren plaza. Oinezkotzeko obra egiten hasi dira, eta behin lanak amaituta, oinezkoentzako soilik izango da. Obra honekin galduko diren aparkalekuak berreskuratu asmoz, Errebal azpian hainbat urtetan utzita egon den lur zatian aterako dira 12 aparkaleku berri.

“Olazko Amaren plazan galdutako aparkalekuak, Errebal azpian berreskuratuko dira ”

Done Jakue. Laster hasiko dira hemengo lanak. Gaur egun, jolas parkea eta frontoi txikiko atariaren aurrean dagoen eremua, aparkaleku gisa erabiltzen dena, oinezko eremu bilakatuko da. “Bizilagunekin

egindako bileretan jasotako beharrak kontutan izango ditugu obra gauzatzeko. Bestalde, orain arte ume txikientzat zen parkea, baina Alde Zaharrean bertan dagoen parke estaliak funtzio bera betetzen duenez, orain 6 eta 10 urteko haurrentzat zuzenduko da parke berria. Horrela, Alde Zaharrak umeentzat eskaintza osatuagoa izango du”, agertu du Epeldek.

Foru Ibilbidea. Gune hau, herriko punturik korapilatsuena da; ibilgailuak gurutzatu ezinda, espaloiak inbadituta... ibilgailu zein oinezkoentzat gune arriskutsua da oso. Hasita dauden lanekin arazoari irtenbidea ematea bilatzen da. Honela, Astotegian oinezkoen bidea erreka ondora eramango da eta errekararen itsatsita dauden etxebizitzetara, aterpe edo portxea aterako zaie, oinezkoen zein ibilgailuen joan-etorria erraztuko duena.



Ikastetxeetako arduradunak eta udaleko ordezkariak.

Lehen Hezkuntzako ikasleak

Done Jakue kaleko haur parkea eraberritzeko orduan, Azpeitiko ikastetxeetako ikasleek izan dute azken hitza. Izan ere, herriko hiru ikastetxeekin bat egin eta haurren parte-hartzea sustatu du Udalak. Parte-hartzearen aldeko apustuari helduz, Lehen Hezkuntzako gazte-
txoak izan dira Done Jakue kaleko parke berriak izango dituen jolasak aukeratu dituztenak. Prozesu honek bi helburu nagusi bete nahi dituela adierazi du Mari Jose Iturria Hezkuntza zinegotziak: “Batetik, parte-hartzearen lanketa pedagogikoa egin eta parte hartzearen kultura

generazio berrietara hedatu eta bestetik, Done Jakueko jolas parke berria eta herriko haurren arteko lotura sortzea”.

“Parte-hartzearen lanketa pedagogikoa egin eta partaidetzaren kultura generazio berrietara hedatu nahi da ”

Parkea 6 eta 12 urte bitarteko gazteei zuzenduta egongo da, adin tarte horrentzat

zuzendutako eskaintzan hutsunea dagoela uste baitu Udalak. Horrela, bi aukera eskaini zaizkie Lehen Hezkuntzako ikasleei eta boto bidez, bat hautatu dute. Guztira, 961 ikaslek hartu dute parte-hartze prozesuan eta hauetatik 522k B aukera hautatu dute, A aukera 439rek bozka dutelarik. Udala oso gustura dago gazteen partaidetzarekin, gainera, bestelako ekarpenak ere egin dituzte eta hauek kontutan hartuko direla adierazi du.

Modu honetan, 72.000 euroko aurrekontua duen parkea 6 jolasez osaturik egongo da.

erreportajea



Gugandik hasita! Azpeitiarrok ezinbestean **birziklatu** beharko dugu

Hondakinen bilketa edukiontzi bidez, derrigorra eta kontrolatuta izatea erabaki da

birziklapenaren aldeko apustu garbia egin du Azpeitiko Udalak. Maiatzaren 7an egindako Udalbatzan, Udaleko hiru alderdiek (Bildu, EAJ eta Hamaikabat) hondakinen bilketa sistemaren proposamena adostu zuten. Neurri honekin, herriko birziklatze tasa %70era iristea bilatzen da.

“Ahalik eta birziklatze tasa handiena ahalbidetuko duen bilketa sistema diseinatu eta ezarriko dugu. Bilketa sistema hau, gaur egun indarrean dugun edukiontzietan oinarrituko da, eta gaika kontrolatuko duen edukiontzien sistema jarriko da martxan; auzo-konpostaren, kontrol komunitarioaren edo teknologia digital berriek eskaintzen dituzten kontrol digitalaren bidez. Auzo bakoitzari ondoen egokitzen zaion sistema jarriko dugu abian”, adierazi du Eneko Etxeberrria alkateak.

“Ahalik eta birziklatze tasa handiena ahalbidetuko duen bilketa sistema diseinatu eta ezarriko dugu”

Gainera, bilketa sistema berria diseinatzeko orduan, Azpeitiko eragile nahiz herritarren arteko elkarlana eta parte-hartzea bultzatuko dela Udaletik ziurtatu dute ordezkariak, “eta herritarrek hala eskatzen badute herri-kontsulta egingo da”, gaineratu du Etxeberriak.

Azpeitiko Udaleko hiru alderdi politikoek (Bildu, EAJ eta Hamaikabat) onartutako proposamena jarraian irakurri daiteke osorik:

Hondakinen gaian Azpeitiko Udal alderdiek akordio zabala bilatzeko elkarriketetan, ondoko proposamen orokorrera iritsi dira. Alderdiok birziklatzearen aldeko apustua egitea erabaki dugu, ondoko ildo nagusiaren arabera osatuko den hondakinen kudeaketa abian jartzeko:

Akordioa

1. Ahalik eta birziklatze tasa handiena ahalbidetuko duen bilketa sistema diseinatu eta ezarri nahi dugu Azpeitian. Sistemak birziklatze tasak neurtu eta hobetu beharko ditu etengabe, ahalik eta portzentaje handiena lortzeko helburuarekin.
2. Helburua lortzeko, gaur egun indarrean dugun edukiontzien sisteman oinarrituko da Azpeitiko

Udala. Horrela, gaika birziklatzea kontrolatuko duen edukiontzien sistema martxan jarriko da, bai auzo-konpostaren gisa, kontrol komunitario bitartez edo bai teknologia berriek eskaintzen dituzten kontrol digitalen bidez. Gainera, auzo bakoitzari hobekien egokitzen zaion sistema abian jarri.

3. Sistema ezartzeko Azpeitiko Udalak eragile nahiz herritarren arteko elkarlana eta parte hartzea bultzatuko du.

4. Hondakinak murriztu, berrerabili eta ahal den birziklatze maila altuenak lortzeko saiakera egin nahi dugu. Azpeitiko Udalak bereziki landuko ditu prebentzioan eta berrerabilpenean oinarritutako politikak.

5. Edozein kasutan ere, eta herritarrek horrela eskatzen badute, herri kontsulta egiteko aukera egongo da, Udalak dagoeneko onartuta duen parte-hartze ordenantzaren ildotik.

3 arduradunek akordio zabalarengatik zoriondu ziren eta gaia naturaltasunez eztabaidatu behar zela adierazi:

Hondakinen mahaiak lehen bilera ospatu du.

Ekainaren 3an hondakinen mahai irekia ospatu zen lehen aldiz, eta hainbat erabaki hartu dira. Horien artean, sistema berriaren diseinua beharrezkoak diren baliabideak kontrolatzen.

Eta datozen egunetan hainbat neurri hartzea: batez ere, alde zaharra, elkarteak, jatetxeak, taberna eta auzoetan, guztiak birziklatzeko beharra gauzatzeko.

“Gai honetan, denok dakigu arazo bat daukagula. Gure herriko sailka jasotze tasak, eta birziklatze tasak, eskualdeko txikiak dira.

Eta arazo honi heldu egin behar diogu. Azpeitiarrak, denon artean, birziklatze tasak biderkatu egin behar ditugu. %80 iristen saiatu behar dugu. Ahal den gehien. Eta gainera epe oso motzean. Ziur gaude, kontsentsu politiko honekin eta azpeitiarren laguntzarekin, Azpeitiko sistema bilketa berriak emaitza ezin hobeak emango dituela.



Ez da gaia portzentaje bat adostea ez, gaia ez da hori, gaia egitea da. Neurtu eta bilketa sistemaren emaitza portzentaje hori izatea, bestela kea saltzea da.

Daukagun sistemari etekin hoberena atera behar diogu, eta sakon landu. Horretarako gaitasuna badugu. Eta herritarrek bilketa emaitza ezin hobeetara eramango gaituztela seguru dakigu.

Gaia tekniko da, gaur ildo nagusienak erabaki ditugu, edukiontziekin egingo dugu. Edukiontziekin bai auzo-konposta bidez, kontrol komunitarioarekin edo teknologi berriekin. Auzo bakoitzari hobekien etortzen zaiona. Marra gorria hor dago, denok egin beharko dugu.

Orain, adostasun politikotik, hitzetatik, ekintzetara pasatu behar dugu. Akordioak zabalak oso onak dira baina gauzatu egin behar ditugu. Lanean jarri gaitzen, beste lehentasunekin batera, eta demostratu dezagun honetan ere gure herria eredugarria dela. Orain, adostasun politikoak adostasun soziala pasatuko gara, eta jar gaitzen guztiok birziklatzearen aldeko apustuan”.

“Guk proposatutako ordenantzaren arabera eskatzen bada, galdeketa egingo da”



Udaleko eta ikastetxeetako arduradunak.

Gugandik hasita!

Ikastetxeak ere, sortutako hondakin organikoa konpostatzen hasi dira

Azaldu zutenez ingurumena errespetatzeko, Azpeitiko Ikastola Ikasberrin, Iraurgi Ikastetxean eta Urola Ikastolak sortutako hondakin organikoa konpostatzen hasi dira. Modu honetan, hiru ikastetxeek hartutako konpromisoak agertu zituzten:

1. Eskola berde eta arduratsu izatea.
2. Gure hondakinen arduradun izatea.
3. Gure eskolak gure ikasleen heziketarako ez ezik, Azpeitiko herriaren bereizketa arduratsurako ere tresna izatea.

“Eskola Berdearen ekimenari esker, hezkuntza zentroak zaborrik gabeko eskolak bihurtzen dira”

“Eskola Berdeen asmoa, naturarekin harremanetan egonik, hau ulertuz, honen funtzionamendua laguntzea da, eta giza-eraginak uzten duen arrastoagatik, hondakinen kudeaketa hartzen du ardatz. Ekimen honi esker hezkuntza zentroak zaborrik gabeko eskolak bihurtzen dira, eskolak sor ditzakeen hondakinak ahalik eta gehien murrizten dituelako, eta sortutakoak, berrerabili edo birziklatzeko konpromisoa hartzen duelako”, agertu zuten.

Azpeitiar ugari ari dira hondakin guztiak birziklatzen



Azpeitiko Udalak esfortzu handia egin du azken urteetan birziklapenaren alde eta egindako lanak, kanpaina eta ikastaro bidez, bere fruituak ematen ari da. Izan ere, azken bi urteetan bosgarren edukiontzia erabilerara asko ugartu da herritarren artean.

Datu positiboak diren arren, Udalak eta Urola Erdiko Mankomunitateak lanean jarraitzen dute ahalik eta herritar guztiek materia organikoa bil dezaten. Maiatzean adibidez, 217 familia gehiagok hartu zuten edukiontzi marroia: “Aurten 3 aldiz egin da dagoeneko bosgarren edukiontziko ikastaro, erritmo oso ona daramagu beraz. Ikastaro hauek 50-60 pertsonako taldeak bildutakoan egiten dira, goizez 11:00etan edo arratsalde 18:00etan, eta oso erraza da izena ematea. Mankomunitateko

943 85 73 19 telefonora deitu behar da”, esan du Leire Etxaniz zinegotziak.

Dagoeneko, beste 80 familia izena emanda daude eta edukiontzien zain dago Udala ikastaroa egiteko: “600 pote eskatu ditugu eta iritsitakoan, berriro banatuko dira. Azpeitiarrak animatu nahi ditugu parte-hartzera, oso erraza baita materia organikoa birziklatzea!”, gaineratu du Etxanizek.

Birziklatzea erraza da! **Gugandik hasita!**



Papera

Zer bota?

- Egunkariak eta aldizkariak.
- Iragarkietako papera (postontzietakoa...).
- Kartoiako kaxak (gaileta kaxak, arrautzen kartoiak...).
- Dendetako paperezko poltsak.

Nola?

- Kartoiak ondo tolestu.
- Kendu paper eta kartoiak metalikoa den guztia (grapak, uztaia...).
- Plastikozko poltsetan ez sartu.



Ontzi arinak

Zer bota?

- Plastikozko ontziak: freskagarrienak, olioarenak, garbiketako produktuenak, kosmetikoenak, jogurtenak, plastikozko poltsak, ur botilak...
- Metalezko ontziak: edarienak, kontserba potoak, hustutako aerosolak, metalezko estalkiak...
- Tetrabrikak.
- Beirazko ontzien metalezko tapak.

Nola?

- Ontziak guztiz hustu, garbitu eta tolestu.
- Ontziak eta beren estalkiak bereizita laga.
- Ez utzi ontziak plastikozko poltsa baten barruan; hustu edukiontzian eta poltsa bertan sartu.



Hondakin organikoa

Hondakin organikoak konpostatzeko dituen beharreetatik hondakin organikoak bereizteko herritarrek izena eman eta formazio saio bat pasa behar dute. Hau egiten dutenek hondakin organikoak poltsa berezietan edukiontzietara botatzeko giltza eta potea jasotzen dute. Udalak hartutako akordioaren ildotik derrigorrezkoa izango da



Beira

Zer bota?

- Beirazko botilak (zuriak, berdeak eta marroiak).
- Kristalezko ontzi eta poteak (kontserbenak, lurrinenak eta kosmetikoenak).

Nola?

- Hutsak eta garbiak.
- Estalkirik, tapoirik eta kortxorik gabe.



Errefusa

Nahasian bildutako hondakina. Errefusa zabartegira doa zuzenean eta horregatik ahalik eta gutxien izan behar du. Udalak kontrolatzeko neurriak hartuko ditu.

Manresakoak Azpeitian



manresako turismo enpresa batek Ignaziotar Bidearen erromesaldia autobusez egiteko aukera eskaintzen hasi da eta lehenbiziko taldea Azpeitian izan da dagoeneko. Horrela, bidaiaren baitan, Eneko Etxeberria Azpeitiko alkatearekin bildu ziren hainbat oroigarri eman eta Manresako alkate den Valentí Juventen agur eskutitz bat helarazteko. Manresako alkateak elkarlan zubiak bilatzearen onurak nabarmendu ditu, turismo nahiz kultur arloan positiboa ikusten baitu harremanen sendotzea.



Igeriketa ikastaro trinkoa

ekainaren 28an hasi eta uztailaren 24ra bitartean, Kirol Patronatuak igeriketa ikastaro trinkoa antolatu du 7 eta 13 urte bitarteko ume eta gazteentzat. Saioak asteartetik ostiralera izango dira, 09:00etan eta 10:00etan, eta izena eman nahi dutenek, igerilekura jo beharko dute. Ikastaroaren prezioari dagokionez, bazkideek 52,50 euro ordaindu beharko dituzte, eta bazkide ez direnek 91,90 euro.

Merkataritza saltokiak berritzeko diru-laguntzak



merkataritza saltokiak berritzeko diru-laguntzak eskatzeko epea zabalik dago jada. Diruz lagundu daitezkeen inbertsioak honakoak izango dira: lokala berritzeko eta modernizatzeko bideraturiko inbertsioak, altzariak, balantza elektronikoak, informatika-ekipoak eta horien aplikazio eta osagarriak ere. Eskaera egiteko epea ekainaren 17an amaitzen da eta arduradunak agertu duenez, diru laguntzetara sarbidea izateko, gutxieneko inbertsioa 600 eurokoa da, BEZ gabe eta jarduera nagusia komertziala izan behar du.

Haur guztiak udalekuetan



Udal udaleku irekietan izena emateko aukera izan zuten herriko haur eta gaztetxo guztiek maiatzean zehar eta orain, Azpeitiko Udaleko Gazteria sailak adierazi duenez, aurten ez da zozketarik egingo izena eman dutenen artean. Horrela, Gazte Informazio Bulegoan udalekuetan parte hartzeko inskribatu diren haur eta gazte denek udako ekimenetan parte hartu ahal izango dutela aurreratu dute. Etxeetan jasoko duten gutun baten bitartez izango dute haur eta gaztetxoen gurasoek udaleku irekietako informazio guztiaren berri.

Izarraizpeko Aniztasun Kulturalaren Aste arrakastatsua



azpeitiko, Azkoitiko eta Zestoako Udalek IPAKA 2013, Izarraizpeko Aniztasun Kulturalaren aurreneko astea antolatu zuten eta arduradunak oso gustura agertu dira emaitzarekin. Izan ere, herritar ugari hartu zuten parte antolatutako egitasmo guztietan. Jatorri ezberdinetako herritarrek bat egin zuten musika, dantza, bertso edota bestelako emanaldietan eta hurrengo urteetan, berriro antolatzeko asmoa agertu dute ordezkariak.



8, larunbata

ESKOLAKO AGENDA 21

X. urteurren festa

Lekua: Ingurugiro Etxea Museoa
Ordua: 11:00etatik 14:00etara.

ARRANTZA TXAPELKETA

Ordua: 8:30-12:30
Lekua: Enparan Dorretxe -azoka

EUSKAL ANTZERKI TOPAKETA

Kartel erakusketa
Ordua: 12:00-14:00
Lekua: Betharram Aretoa

ASTEBURU MUSIKALA

Kultur talde desberdinen erakustaldia

Lekua: Plazan eta kaleetan zehar
Ordua: 19:00

OINKADA ARGAZKI PROIEKZIOA

Ordua: 20:00
Lekua: Sanagustin Kulturgunea

ELIZKALEKO KORPUTZ JAIK

13:00 Itsasi dantza taldekoak kalean zehar
19:30 Nuarbeko Martinekin txistu kalejira
20:30 Baigera tabernan lagunarteko afaria
23:00 Gabezin taldearen emanaldia
24:00 Zozketa kalean bertan

ESKOLARTEKO IGERI TXAPELKETA

Ordua: 16:00-18:00 Lekua: Igerilekua

9, igandea

ASTEBURU MUSIKALA 2013

UROLAKO MUSIKA ESKOLEN BILKURA

Lekua: herriko kaleetan zehar
Ordua: 11:00etatik 14:00etara

SANJUANDEGIKO KROSSA

Ordua: 11:00-13:00 Lekua: Sanjuandegi

EUSKAL ANTZERKI TOPAKETA

Kartel erakusketa
Ordua: 12:00-14:00
Lekua: Betharram Aretoa

ERREMONTE PARTIDAK

Ordua: 18:00
Lekua: Izarraitz pilotalekua

10, astelehena

EUSKAL ANTZERKI TOPAKETA

Kartel erakusketa
Ordua: 18:00-20:00
Lekua: Betharram Aretoa

11, asteartea

EUSKAL ANTZERKI TOPAKETA

Kartel erakusketa
Ordua: 18:00- 20:00
Lekua: Betharram Aretoa

HITZALDIA

Gaia: Haurren elikadura
Lekua: Txiki Txoko ludoteka
Ordua: 19:00
Hizlaria: Idoia Larrañaga

12, asteazkena

EUSKAL ANTZERKI TOPAKETA

Kartel erakusketa
Ordua: 18:00-20:00
Lekua: Betharram Aretoa

13, osteguna

EUSKAL ANTZERKI TOPAKETA

Kartel erakusketa
Ordua: 18:00-20:00
Lekua: Betharram Aretoa

GAZTEEN ANTZERKI EMANALDIA

Ordua: 19:00
Lekua: Sanagustin Kulturgunea

14, ostirala

EUSKAL ANTZERKI TOPAKETA

Kartel erakusketa
Ordua: 18:00-20:00
Lekua: Betharram Aretoa

ORKATZ KULTUR ELKARTEAREN

20. URTEURRENA Bertso saioa

Ordua: 22:30
Lekua: Orkatzen

SAN JUANAK 2013- URRESTILLA

22:15 Pilota partida

15, larunbata

EUSKAL ANTZERKI TOPAKETA

Kartel erakusketa
Ordua: 12:00- 14:00
Lekua: Betharram Aretoa

SAN JUANAK 2013- URRESTILLA

16:00 Herri krossa
19:30 Bentazaharreko Mutiko
Alaiekintantziak

ORKATZ KULTUR ELKARTEAREN 20. URTEURRENA

10:00 Segapustua
11:30 Batzarra Sindikatu Zaharrean
13:00 Hamaiketako trikitilariak
14:30 Bazkaria San Agustinen
Bazkalondoren: "Amamantzat guapuk"
22:00 Kontzertuak: The Fridays crew,
Egurra ta kitto eta Belar txarrak

16, igandea

ORKATZ KULTUR ELKARTEAREN 20. URTEURRENA

12:00 Porrotzekin kalejira

EUSKAL ANTZERKI TOPAKETA

Kartel erakusketa
Ordua: 12:00- 14:00
Lekua: Betharram Aretoa

POXPOLO ETA KONPANIA

Ordua: 18:30
Lekua: Sanagustin kulturgunea

SAN JUANAK 2013- URRESTILLA JUBILATUEN EGUNA

12:00 Meza Nagusia
12:45 Metal Boskotea
13:00 Hamaiketako
14:00 Jubilatuen bazkaria
Bazkalondoren, kantaldia

17, astelehena

LITERATUR SOLASALDIA

Ordua: 18:00
Lekua: Azpeitiko udal liburutegia

EUSKAL ANTZERKI TOPAKETA

Kartel erakusketa
Ordua: 18:00- 20:00
Lekua: Betharram Aretoa

18, asteartea

EUSKAL ANTZERKI TOPAKETA

Kartel erakusketa
Ordua: 18:00- 20:00
Lekua: Betharram Aretoa



19, asteazkena

HITZALDIA: Gazteekin nola komunikatu

Lekua: Gaztelekua

Ordua: 19:00

Hizlaria Amaia Vazquez

EUSKAL ANTZERKI TOPAKETA

Kartel erakusketa

Ordua: 18:00- 20:00

Lekua: Betharram Aretoa

ASTEBURU MUSIKALA

MUSIKA ESKOLAKO JAIALDIA

Ordua: 19:30etan

Lekua: Soreasu Antzokia

20, osteguna

URAREN KUDEAKETA JARDUNALDIA

Ordua: 17:30

Lekua: Sanagustin Kulturgunea

EUSKAL ANTZERKI TOPAKETA

Kartel erakusketa

Ordua: 18:00- 20:00

Lekua: Betharram Aretoa

21, ostirala

Kontzertua- Iraurgiko abesbatzaren

10 urteko historia ospatzeko

Lekua: Soreasu Antzokian

Ordua: 19:30

TXIKI BIRAN IKUSKIZUNA

“ASMAKUNTZAK SALGAI”

Lekua: Urrestilla

Ordua: 18:00

22, larunbata

ARTE ETA DISEINO erakusketa

Lekua: Betharram Aretoa

Ordua: 12:00etatik 14:00etara

SAN JUANAK 2013- URRESTILLA

18:00 Rally poteue

21:00 Gazte afaria

23:00 Kontzertuak: Belar Txarrak

eta Zopilotes txirriaos

OÑATZ KO SAN JUANAK 2013

Gauean lagun eta auzokoen afaria

Bertso afaria, trikitilariekin

23, igandea

ARTE ETA DISEINO erakusketa

Lekua: Betharram Aretoa

Ordua: 12:00etatik 14:00etara

ASTEBURU MUSIKALA

IZARRAITZ TXISTULARI TALDEA

Lekua: Kaleetan zehar

Ordua: 19:30

OÑATZKO SAN JUANAK 2013

12etan meza, ondoren herri

kirolak, trikitilariak alaituz

SAN JUANAK 2013- URRESTILLA

20:00 Poteo herrikoia

21:00 Pregoia, Agurra, Txupinazoa

eta segidan Herri Afaria

00:00 San Juan Zuhaitza sartzea.

Segidan, San Juan sua piztuko da

00:30 Dantzaldia Laket taldearen eskutik

24, astelehena

ASTEBURU MUSIKALA

UDAL MUSIKA BANDA Kalejira

Lekua: Urrestilla Auzoa

Ordua: 11:00ak eta 12:30etan

ARTE ETA DISEINO erakusketa

Lekua: Betharram Aretoa

Ordua: 18:00etatik 20:00etara

OÑATZKO SAN JUANAK 2013

12etan meza nagusia Azpeitiko

koroaz lagundua. Ondoren trikitilariekin

erromeria, eta koruko partaide eta

auzoko jubilatuentzat, mokadutxoia

TXIKI BIRAN IKUSKIZUNA

BEGIRA “DISKO TXIKIA”

Lekua: Urrestilla

Ordua: 17:30

SAN JUANAK 2013- URRESTILLA

12:00 Meza Nagusia

12:45 Azpeitiko Udall Musika Banda

13:00 Erraldoiak eta Buruhaundiak

17:30 Umeentzat erromeria

22:00 Errimak oinetan

25, asteartea

ARTE ETA DISEINO erakusketa

Lekua: Betharram Aretoa

Ordua: 18:00etatik 20:00etara

SAN JUANAK 2013- URRESTILLA

12:30 Sagardo dastaketa

14:00-14:45 Museko izen ematea

15:00 Mus Txapelketa

16:00 Puzgarriak

17:00 Haurrentzat merienda

22:00 Saloiko dantzak

26, asteazkena

ARTE ETA DISEINO erakusketa

Lekua: Betharram Aretoa

Ordua: 18:00etatik 20:00etara

SAN JUANAK 2013- URRESTILLA

17:00 Haurrentzako eskulanak

23:00 Zuhaitzaren entierroa

27, osteguna

ARTE ETA DISEINO erakusketa

Lekua: Betharram Aretoa

Ordua: 18:00etatik 20:00etara

28, ostirala

ARTE ETA DISEINO erakusketa

Lekua: Betharram Aretoa

Ordua: 18:00etatik 20:00etara

29, larunbata

ARTE ETA DISEINO erakusketa

Lekua: Betharram Aretoa

Ordua: 12:00etatik 14:00etara

DAMASOKO JAIK 2013

11:00 TXUPINAZOA

11:15 BIZIKLETA PROBA

11:45 TXIKIEN VIII. LASTERKETA

12:00 HAUNDIEN VIII. LASTERKETA

12:15 SARI BANAKETA

12:30 TXARANGA POTEAO

16:00 MARRAZKETA

16:30 MERIENDA

17:00 LOKOTX BILTZEA, AULKI

DANTZA eta GLOBO LEHERKETA

18:30 BURUHAUNDIAK

19:00 TXARANGA POTEAO

20:30 UMEEN AFARIA

21:30 HELDUEN AFARIA

23:00 MUSIKA ETA AUZOKO

TITIRITEROEN EMANALDIA

FUTBITO TXAPELKETA FINALA

Antolatzailea: Gaztetxea

Ordua: 17:00-19:00

Lekua: Plaza Nagusia

30, igandea

SEGA TXAPELKETA

Ordua: 11:30

Lekua: Ikasberriko kanpa

ARTE ETA DISEINO erakusketa

Lekua: Betharram Aretoa

Ordua: 12:00etatik 14:00etara



MAHAI INGURU/FORO IREKIA

PARTAIDEAK:

Gipuzkoako Foru Aldundia
Uraren Euskal Agentzia
Gipuzkoako Ur Kontsortzioa
Iñaki Antigüedad
Bunt Planet
ENBA
LAB...

Uraren inguruan hitz egin nahi dugu,
uraren prezioaz eta kudeaketaz.
Horretarako, adituak diren gonbidatuak
bildu ditugu, baina zure iritzia ere
jakin nahi genuke. Zihur baduzula zer esanik.

Noren esku
egon behar du
uraren
kudeaketak?

Zilegi al da
urarekin
dirua egitea?

Zer ordaintzen
dugu uraren
fakturan?

Zergaitik du
urak prezio
ezberdina herri
ezberdinetan?

Denok berdin
ordaindu beharko
al genuke
uraren truke?

Baserritarrek, Jatetxeek?
Industriak? herritarrek?

EKAINAK 20, 18:00 etan

AZPEITIKO SAN AGUSTIN KULTURGUNEAN

